

## PRESBIDE-KO BERRIAK. 2016KO AZAROA

- 1- Posologia handitzean kreditu gehigarria eskaintzea
- 2- Egoitzen pazienteak eta lehen mailako arretatik egiteke dauden zereginak-preskripzioak (“tareak pendientes – prescripciones”).


### 1. POSOLOGIA HANDITZEAN KREDITU GEHIGARRIA ESKAINTZEA

Eman beharreko hurrengo kreditutik aurrera preskripzio baten posologia aldatzen bada, errezeta elektronikoaren sistemak berriro kalkulatzen du banatuko diren ontzien kopurua.

Izan ere, posologia handituz gero, eman beharreko ontzien kopurua ere handitu behar izaten da. Hori horrela, pauta zer neurritan handitzen den eta aurreko medikazioa noiz jaso duen aintzat hartuta, gerta liteke botikak jaso behar dituen hurrengo data arte iristeko adina sendagai ez edukitzea pazienteak.

Egoera hori ikusita, **funtzionalitate berria** garatu dugu preskripzioa aldatzen denean pazienteak kreditu gehigarriren bat behar duen jakin ahal izateko; horrez gain, zenbateko bat (ontzi kopurua) ere proposatzen du funtzionalitate horrek.

Adibidea: sendagai baten posologia handitu eta preskripzioa sinatzen dugu. Orduan, Presbidek honako ohar hau bidaltzen digu, eta N ontzien kreditu gehigarria egitea iradokitzen digu:



Bi aukera ditugu:

- Kreditu gehigarria sortzea: Zuzenean kreditu gehigarriko preskripzio bat sortzen digu, aurretik kargatutako proposatutako edukiontzi-kopuruarekin. Lehenetsitako aurretik kargatutako justifikazioa honakoa da: “posologia handitu da”.
- Kreditu gehigarririk ez sortzea.

## **2. EGOITZEN PAZIENTEAK ETA LMA-TIK EGITEKE DAUDEN ZEREGINAK-PRESKRIPZIOAK (“Tareas Pendientes”)**

Aurten, Presbidek zentro soziosanitarioetan duen erabilera zabaltzen joan da. Instituzionalizatutako pazienteen medikazioaren kudeaketa errazteko, eta haien medikazioaren jarraipena egoitza bertatik egiten denez, zentro soziosanitarioetan sortutako eta/edo aldatutako/luzatutako preskripzioak lehen mailako arretako kupoetan egiteke dauden atazetatik kendu dira.